

**KIROLARIAK MUGIMENDUAN PLANIFIKAZIOA**  
**DBHko 3. mailako Plastika arloa 2023-2024 ikasturtea (otsaila-ekaina)**

**OTSAILA 5-9**

1. JARDUERA

Ikas-egoeraren, helburuen, landuko ditugun konpetentzia espezifikoen, jakintzen, ebaluazio-irizpideen, planteamenduaren eta baliabideen azalpena egitea.  
Ikasturtean zehar, Plastika arloan erabiliko ditugun [plastikagela.com](http://plastikagela.com) webgunean eta Showbie aplikazioan ikas-egoerari buruzko informazioa erakustea eta azalpenak egitea.

**OTSAILA 12-16**

2. JARDUERA

Lerroen eta koloreen ezaugarriei buruzko, eta baliabide horietan oinarritutako irudiei buruzko informazioa bildu eta hautatzea nola egin azaltzea.  
Lerroen eta koloreen ezaugarriei buruzko informazioaren bilketa eta hautaketa egitea.

**OTSAILA 19-23**

3. JARDUERA

Lerroen eta koloreen ezaugarriei buruzko informazioaren bilketa eta hautaketa egitea.

**OTSAILA 26-MARTXOA 1**

4. JARDUERA

2010-2011 ikasturteko Kirolariak Mugimenduan proiektuko irudien azterketa egitea: irudi desberdinak ikusi eta aztertuko ditugu, irudiotan lerroen (motaren, zabaleraren, intentsitatearen, kolorearen, sortutako efektuen) eta koloreen (osagaien, gamaren, sortutako efektuen) ezaugarrien identifikazioa, sailkapena eta azterketa eginez genero-isuririk gabe, jakin-mina, sentsibiltatea eta errespetua erakutsiz.  
Socrative aplikazioaren bitartez lerroen eta koloreen ezaugarrien eta baliabide horietan oinarritutako irudi batzuen azterketa egitea.

MARTXOA 4-8	
5. JARDUERA	<p>Kirolariak mugimenduan irudiak egiteko hastapenak: argazkia eta marrazkia, teknika digitala eta ohikoaren arteko harremana.</p> <p>Hasierako ideiak eta zirriborroak: kirolak eta kirolariak aukeratu, ereduak bilatu, irudietan lerroen eta koloreen baliabideen azterketa eta erabilera eginez.</p>

MARTXOA 11-15	
6. JARDUERA	<p>Kirolariak mugimenduan irudiak egiteko hastapenak: argazkia eta marrazkia, teknika digitala eta ohikoaren arteko harremana.</p> <p>Hasierako ideiak eta zirriborroak: irudietan lerroen eta koloreen baliabideen azterketa eta erabilera egitea eta horri buruzko anotazioak idaztea.</p> <p>Irudia osotasun bezala ulertuz, eta lerroen eta koloreen baliabideak irudiaren atalak bezala, Pentsamenduan Oinarritutako <i>Atalak eta osotasuna</i> Trebetasuna landuko dugu. Ikasleek trebetasunean lortutako ikaskuntza lerroen eta koloreen baliabideak euren Kirolariak mugimenduan irudietan era egokian aplikatuz erakutsiko dute.</p>

MARTXOA 18-22	
7. JARDUERA	<p>Kirolariak mugimenduan irudiak egiteko hastapenak: argazkia eta marrazkia, teknika digitala eta ohikoaren arteko harremana.</p> <p>Hasierako ideiak eta zirriborroak: irudietan lerroen eta koloreen baliabideen azterketa eta erabilera egitea eta horri buruzko anotazioak idaztea.</p>

APIRILA 8-12	
8. JARDUERA	<p>Kirolariak mugimenduan irudiak egiteko hastapenak: argazkia eta marrazkia, teknika digitala eta ohikoaren arteko harremana.</p> <p>Hasierako ideiak eta zirriborroak: irudietan lerroen eta koloreen baliabideen azterketa eta erabilera egitea eta horri buruzko anotazioak idaztea.</p>

APIRILA 15-19

9. JARDUERA	<p>Prozesuan zehar egindako lanaren ebaluazioa eta autoebaluazioa: talde osoko bileran, irakaslearen zirriborroak ikusi eta aztertuko ditugu, irudiotan ikusizko baliabideen identifikazioa, sailkapena eta azterketa eginez. Zirriborroetan, planteatutako hasierako ideiak lortzeko lerroen eta koloreen baliabideak era egokian erabili diren aztertuko dugu.</p> <p>Ondoren, ikasle bakoitzak, AUTOEBALUAZIO dokumentua Showbietik Pages aplikaziora deskargatuko du eta bere lanaren autoebaluazioa egingo du, landutako zirriborro guztiak aztertuz, planteatutako hasierako ideiak lortzeko lerroen eta koloreen baliabideak era egokian erabili diren aztertuz lanaren garapena ebaluatzeko. Bukatzerakoan, ikasleak bere AUTOEBALUAZIO dokumentua Showbiera bidaliko du pdf formatuan eta era egokian izendatuta.</p>
-------------	--

APIRILA 22-26

10. JARDUERA	<p>Sormen prozesuaren autoebaluazioaren ondoren, hobekuntzak egiteko proposamenak aztertzea eta beharrezkoak diren egokitzapenak egitea, planteatutako hasierako ideiak era egokian lortzeko lerroen eta koloreen baliabideak era egokian erabiliz.</p> <p>Zirriborroak egiten jarraitzea.</p>
--------------	--

APIRILA 29-MAIATZA 3

10. JARDUERA (BIS)	<p>Sormen prozesuaren autoebaluazioaren ondoren, hobekuntzak egiteko proposamenak aztertzea eta beharrezkoak diren egokitzapenak egitea, planteatutako hasierako ideiak era egokian lortzeko lerroen eta koloreen baliabideak era egokian erabiliz.</p> <p>Zirriborroak egiten jarraitzea.</p>
--------------------	--

MAIATZA 6-10

11. JARDUERA	<p>Hobekuntzak ezarri ondoren, eta horretarako landutako zirriborroetan oinarrituz, azken emaitza lantzea.</p>
--------------	--

MAIATZA 13-17

12. JARDUERA

Hobekuntzak ezarri ondoren, eta horretarako landutako zirriborroetan oinarrituz, azken emaitza lantzea eta aurkeztea.

MAIATZA 20-24

13. JARDUERA

Portafolioa egitea: hasierako planteamendua eta ideiatik hasita azken emaitzaraino paperean egindako lanaren bilduma osatzea. Paperean egindako lanaren argazkiak eginez, portafolio digitala nola egin azaltzea, ereduak ikusiz eta aztertuz. Hauek dira portafolioak izan behar dituen atalak:

1. Izenburua eta izen-abizena, ereduaren formatua, letra mota, tamaina eta itxura errespetatuz.
2. Hasierako zirriborroak, kronologikoki sailkatuta. Lehenengoa irudi digitala izango da. Irudi hauen argazkiak autoebaluazioarako egin genituen jada.
3. Autoebaluazioaren orriak (pantailaren kaptura eginez).
4. Autoebaluazioaren ondorengo zirriborroak, erabakitako hobekuntzak dituztenak.
5. Azken emaitza.

Paperean egindako lanaren argazkiak eginez, portafolio digitala Keynote aplikazioan sortzea eta Showbiera pdf formatuan eta era egokian izendatuta bidaltzea, Abizenalzena\_PORTAFOLIOA.

Paperean egindako lana bukatu duten ikasleei lan gehigarriak eta hauek portafolioan nola txertatu azalduko zaie.

Hauek izando dira lan gehigarriak:

1. Azken emaitzaren irudi digitala eta bestsioak.
2. Irudia lerro bakar batez egitea eta bertsioak.

MAIATZA 27-31

14. JARDUERA

Proiektuaren lan gehigarriak azaltzea eta egitea:

1. Azken emaitzaren irudi digitala eta bestsioak.
2. Irudia lerro bakar batez egitea eta bertsioak.

EKAINA 3-7

15. JARDUERA

Portafolioan lan gehigarriak nola txertatu azaldu ondoren, ikasle bakoitzak bere portafolio digitala Keynote aplikazioan bersortzea eta Showbiera pdf formatuan eta era egokian izendatuta bidaltzea, Abizenalzena\_PORTAFOLIOA.

EKAINA 10-14

16. JARDUERA

Ikasleek euren kideei eta irakasleari proiektua eta azken emaitza aurkeztea talde osoko bileran. Proiektuaren aurkezpena egiteko portafolio digitala proiektatuko dute.

EKAINA 17-19

17. JARDUERA

Ikasleek euren kideei eta irakasleari proiektua eta azken emaitza aurkeztea talde osoko bileran. Proiektuaren aurkezpena egiteko portafolio digitala proiektatuko dute.